



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

“Eskola eta Curriculumuma” modulua Haur Hezkuntza Graduan

Egilea(k)

Pilar Aristizabal, Ainhoa Gomez, M^a Teresa Vizcarra, Amaia Andrieu.

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNEN
ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA**

Liburu honek UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Eskola eta Curriculuma Haur Hezkuntzan

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNEN
ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA**

ISBN: 978-84-9860-754-3

Liburu honek UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren dirulaguntza jaso du

“ESKOLA ETA CURRICULUMA” Modulua Haur Hezkuntza Graduan

GASTEIZKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA



Editoreak:

Pilar Aristizabal Llorente

Ainhoa Gomez Pintado

Maria Teresa Vizcarra Morales

Amaia Andrieu Sanz

“ESKOLA ETA CURRICULUMA” Modulua Haur Hezkuntza Graduan.

Dokumentu honen editoreak honako hauek izan dira:

Pilar Aristizabal Llorente

Ainhoa Gomez Pintado

Maria Teresa Vizcarra Morales

Amaia Andrieu Sanz

Dokumentu honen autoreak honako hauek izan dira:

Juan Abasolo, Amaia Andrieu, Pilar Aristizabal, Ainara Duque, Puy Fernandez, Jose Domingo García de la Torre, Ainhoa Gomez, Mari Jose Inchausti, Guillermo Infante, Rosa Oteiza, M^a Teresa Vizcarra, Ana Zuazagoitia.

Honako pertsona hauek koordinatu dute moduluaren esperientzia hainbat fasetan:

Ainhoa Gomez Pintado, Amaia Andrieu Sanz, Puy Fernandez

AURKIBIDEA

Sarrera.....	7
1. Aurrekariak	8
1.1. Graduen diseinu-prozesua	8
1.2. Koordinazioa Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola.....	8
1.3. Irakasle titulazioetako moduluko egitura	10
1.4. UPV/EHUko IKD eredu.....	12
1.5. Irakaskuntza metodologia aktiboak.....	13
1.6. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza.	15
2. Moduluaren izena eta izana	17
2.1. Moduluaren kokapena eta zentzua titulazioan	17
2.2. Irakasgaiak eta beraien ekarpen tematikoa moduluari	17
2.3. Ikasmilako eta moduluko gaitasunak.....	19
2.4. . Moduluaren helburua	20
3. Diziplinarteko lana (DAL)	21
3.1. Deskribapena.....	21
3.2. Lana egiteko jarraibideak	22
3.3. Material lagungarriak	22
3.4. Taldeak eratzea.....	23
3.5. Tutorizazioaren antolaketa.....	24
3.6. Lanaren faseak, tutorizazio saioak eta lana emateko modua	24
4. Diziplina Arteko Lanaren ebaluazioa.....	27
4.1. Ikasle presentzialentzako ebaluazioa	27
4.2. Presentzialak ez diren ikasleentzako ebaluazioa	29
4.3. Eskola eta Curriculuma moduluko ebaluaziorako errubrika.....	29
5. Maiz egiten diren galderak.....	33
6. Epilogo: DALaren balorazioa	33
7. Erreferentzia bibliografiakoak	35

ERANSKINAK

I. Eranskina. Glosategia.....	36
II. Eranskina. Baliabideen analisirako gida	38
III. Eranskina. Erreferentzia bibliografikoen aipamena	42

SARRERA

Eskuen artean duzun materialak gida bat izan nahi du, eta, hala, ikaslearen zein irakaslearen lana gidatzeko eta laguntzeko asmoz eginda dago. Gradu berrien diseinuarekin batera erronka berriak sortu ziren irakasleen hasierako prestakuntzan, hain zuzen ere, gaitasun akademikoak ez ezik gaitasun profesionalak ere garatzea. Horretarako, lan egiteko beste modu bat bultzatu behar genuen, eta, hala, ikaslearen ibilbide osoan gaitasunen garapena bermatuko zuten diziplinarteko lanak egitea otu zitzaigun. Hala, irakasgaiak beren izatetik atera behar ziren pertsonaren garapenaren parte bihurtzeko.

Gida honetan, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan, Eskola eta Curriculuma moduluan egin beharreko diziplina arteko lana (DAL) jasotzen da. Dokumentu honetan deskribatzen den modulu hori lehenengo mailako bigarren lauhilekoan eskaintzen da, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako titulazioetan, baina titulazio bakoitzean ezaugarri propio eta bereziak izango ditu: Haur Hezkuntzan, eskoletan, ikasgela barruan erabiltzen diren proiektuen azterketa egingo da; Lehen Hezkuntzan, berriz, eskolatik kanpo aurki daitezkeen askotariko baliabide didaktikoen azterketa (museo edo interpretazio zentroen eskaintza pedagogikoa...). Hala ere, koherentzia mantentzeko asmoz, ardatz nagusiak antzekoak izango dira, bai batean bai bestean.

Gidaren egiturari dagokionez, gidak berak DALaren prozesua islatzea helburu duela kontuan hartuz, honako arlo hauek jorratuko ditu: moduluko planteamenduaren eta koordinazioaren aurrekariak aztertu ondoren, moduluen izaera, alderdi metodologikoak eta ebaluazio-irizpideak, hurrenez hurren. Betiere, kontuan hartuz gida hau etengabeko berrikuste-prozesuan dagoela.

Sarrera amaitu aurretik, *Bolonia Planak* ekarritako aldaketa ugariren artean, funtsezko bi azpimarratu nahi ditugu: koordinazioa eta diziplinartekotasuna. Koordinazioaren bidez, elkarrekin ikasteko-irakasteko esparrua eraikitzen ari gara gure Eskolan, elkarren ondoan lan egiteko. Diziplinartekotasuna aipatzen dugu bakoitzak bere arlotik egiten duelako ekarpena baina, aldi berean, helburu nagusi bera partekatzen dugulako: etorkizun hurbileko maisu-maistrak hobeto prestatzea, haiek izango baitira belaunaldi berrien hezitzaileak eta jendarte hobetzeko eragileak.

1. Aurrekariak

Ezin dugu moduluko lana ulertu graduen oinarrizko ardatzak ezagutu gabe, beraz, ondorengo lerroetan graduen ezarpenari buruzko eta koordinazio prozesuari buruzko, zertzelada batzuk emango dira eta, horrekin batera, koordinazioaren ardatza den modulukako egitura azalduko da.

1.1. Graduen diseinu prozesua


Europako Unibertsitate Eremua (EUE) eratzeko 1999an abian jarritako prozesuak, Bolonia Plana deritzonak, unibertsitateko titulazioak berritzea ekarri zuen. Horrela, 2008. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHUko) hiru Irakasleen Unibertsitate Eskolek Haur Hezkuntzako Gradua eta Lehen Hezkuntzako Gradua eraberritzeko prozesua abian jarri zuten. Hasierako planteamenduan irakasgaien araberako plangintza bat osatu genuen, baina ohartu ginen zeharkako gaitasunak garatzeko zerbait falta zela: sailen artean egiten zen diziplinen banaketa zatikatua gainditu nahi genuela zerbait integralagoa lortzeko. Gainera, bazirudien irakasgaietan planteamendu praktikoa guztiak bigarren plano batean gelditzen zirela. Horregatik, titulazioen diseinua egiterakoan, kezka horiek jasotzen saiatu ginen, behin eta berriro gure gogora etortzen baitziren.

1.2. Irakasle titulazioetako modulukako egitura

Ikasketa-planak diseinatzeko sortu zen Eskola Arteko Batzordeak Gizarte Hezkuntza titulazioan egindako planteamendua hartu zuen eredutzat: irakasgaiak diziplinarteko multzotan bildu ziren, eta irakasgai multzo horiei "modulu" izena eman zitzaion. Horrela, Irakasle Eskoletako ikasketa-plan berrien egitura moduluka antolatu zen.

Modulua diziplinarteko irakaskuntza eredua da; zenbait diziplinaren arteko harreman koherentea da, helburu komun batera doana: modulurako ezarrita dauden zeharkako gaitasunak lortzera. Modulua lauhileko berean ematen diren irakasgaiekin osatzen da; irakasgai bakoitzak bere eremu akademiko propioa du, baina kreditu bat eskaintzen du modulu bakoitzean diziplina arteko lana (DAL) egiteko. Kreditu horiek baliatuz, irakasle taldeak ikasleek egin beharreko diziplinarteko lana diseinatu behar zuen.

Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan 6 modulu definitu ziren, azken ikasturteko Minorraz eta Gradu Amaierako Proiektuaz gainera (ikus 1. irudia).



1. irudia: UPV/EHUko hiru Irakasleen Unibertsitate Eskoletan Haur Hezkuntzako titulaziorako egin den moduluko antolakuntza (grafikoaren egilea Daniel Losada izan zen, eta gerora Pilar Aristizabalek egokitu du gure eskolan).

Grafikoak moduluko egitura ezagutzea ahalbidetzen du, baina, horretaz gainera, interesgarria da modulu bakoitzaren DALaren ildo nagusiak ezagutzea (1. taula).

1. taula: Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako diziplinarteko lanen ildo nagusiak

1. modulua	Irakasle Lanbidea	Zeregin profesionala aztergai. Lanbidearen historia laburra, kolektiboaren ezaugarri soziologikoak, gizartearen eskariak...
2. modulua	Eskola eta Curriculum	Eskolaren jatorria, funtzioak, ezaugarriak, oraina, geroa... aztergai. Didaktika orokorra beste lau irakasgairekin batera, curriculumean sartzen diren ezagutzak, eta horien trataera Lehen Hezkuntzako irakaskuntzan.
3. modulua	Komunikazio Lanabesak	Komunikazio-baliabideak landuko dira. Ikus-entzunezkoen erabilera komunikazioa hobetzeko. Baliabide didaktikoak sortu eta aztertuko dira.
4. modulua	Aniztasuna Eskolan	Kulturartekotasuna, eleaniztasuna, hezkuntza-premia bereziak, ikasteko zailtasunak... aniztasunaren presentzia geletan eta eskoletan, eta aniztasunari erantzun egokia emateko estrategiak.
5. modulua	Konpetentzien Lanketa Eskolan eta Euskal Curriculum	Curriculum konpetentzien lanketa eta garapenaren inguruan antolatzeak ekarri dituen moldaketa metodologikoak aztertzeko edo ebaluazio-lanabesak aztertu eta egokitzeko... Euskal ikuspuntua curriculum diseinatu eta garatzerakoan. Proposamenak, ondorio praktikoak, ikas-materialgintza...
6. modulua	Irakasle Taldeen Lanabesak eta Prozedurak	Espezialitateko irakasgai guztien ekarpenaz oinarritzko protokoloen bilduma sortuko litzateke.

Iturria: ikasketa-planetan oinarrituta, egileok sortua

Moduluko egiturak diziplinen arteko zatiketa –urruntzea– gaindituko zuen kultura aldaketa eskatzen zuen. Behin diseinua paperean egin ondoren, lan hau aurrera eramateko baldintzak sortu eta garatu behar ziren.

1.3. Koordinazioa Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan

Erronka handia genuen aurrean; *Bolonia Planak* terminologia eta metodologia aldaketa zekarren, eta horiek ezagutu eta gure praktikan sartzea beharrezkoa zen: ECTS kredituak, gaitasunak... Bestalde, moduluko planteamenduak arlo guztiak integratzen dituen diziplinarteko zereginak edo lanak elkarrekin planifikatzea eskatzen zuen. Lan horien bidez, ikasleek zeharkako gaitasunak eskuratuko zituzten, eta irakasleen elkarlana bultzatuko zuen tresna bihurtuko zen modulua. Ohitura, kultura eta lan-metodoak aldatzea ez da erraza izaten, eta horiek sustatzeko, gure Eskolan

garbi ikusi zen koordinazioak izan behar zuela planteamendu berri horien oinarri nagusia.

Lantaldeak osatu, irakasle taldeak eratu eta antolatu, eta modulukako lanak diseinatu eta inplementatu behar genituen, eta, aldi berean, lan horren guztiaren ebaluazioa eta jarraipena egin. Ildo horretatik, Eskolako Zuzendaritzak bi helburu nagusi islatu zituen bere plangintzan:

- Modulu planteamendua aurrera eramateko, moduluko koordinatzaileen eta graduko koordinatzaileen profilak zehaztea eta figura horiek sortzea eta indartzea.
- Koordinazio-lana bultzatzea, elkarrekin diseinatutako diziplinarteko jardueraren bidez irakasleen arteko elkarlana indartu zedin. Horrela, irakasgaien artean sor litezkeen bikoiztasunak saihestean gainera, zeharkako gaitasunen garapena berma zitekeen.

Aipatutako helburu horietan bereziki azpimarratu behar da Koordinazio Sarearen eraketa, non, zuzendaritzako ordezkariekin batera, moduluetakoa eta titulazioetakoa koordinatzaileek parte hartuko baitzuten.

Koordinazioaren lehenengo urratsak oso garrantzitsuak izan ziren, lantaldeak osatu zirelako eta irakasleok arlo pedagogikoari buruz hitz egiteko gune bat sortzea lortu zelako. Eskolako Zuzendaritzak Koordinazio Sarearen osaketa eta funtzionamendua bultzatu zituen, eta, horrela, modu progresiboan eraikitzen ari(tu) da sarea. Hartu zuen garrantziaren ondorioz, 2012ko otsailean, Eskola Batzarraren onarpenarekin, Sarea Batzorde bihurtu zen erabateko ofizialtasuna lortuz.

Koordinazio Batzordeak abian diren modulu guztietan hartu diren akordioak jasotzen dituen dokumentua osatu du: *Moduluetarako eta elkarbizitzarako akordioak*¹ izenekoa. Aurreko atalean, aipaturiko *Gomendio gutunarekin* batera, elkarbizitza errazteko eta jarrera arduratsuak bultzatzeko tresnak eskaintzen ditu.

Horrekin batera, beste lorpen batzuk ere azpimarratu behar ditugu: modulu bakoitzak bere koordinatzailea dauka. Koordinazio Batzordearen arduraduna Koordinazio eta Berrikuntzako zuzendariordea da, eta Kalitate eta Hobekuntzako zuzendariordearekin harremanetan dago etengabe.

¹ Ikusi [Elkarbizitzarako akordioen dokumentua](#)

1.4. UPV/EHUko IKD eredu

Garrantzitsua izan zen gure unibertsitatean irakaskuntzarako finkatu zen IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa) izeneko ereduaren berri izatea. Horrekin batera hainbat programa jarri ziren martxan, ikasteko eta aurreratzeko aukera bat eman zigutenak; besteak beste, ERAGIN ikastaroak, alegia, irakasleak metodologia aktibo eta berrietan prestatzeko ikastaroak.

IKDren aldetik jasotako laguntzak gure eguneroko lan egiteko moduan eragina izan du, eta erabakiak hartzean jasotako prestakuntza lagungarri izan da. Prestakuntza horretatik sortu zen orain idazten ari garen irakasle eta ikasleentzako gida hauek egiteko asmoa. Hala ere, ohartuak gaude lan egiteko moduak eta ohiturak ez direla erraz aldatzen, baina hori bagenekien erronka honi aurre egin genionean.

Une hartan gure lan-hipotesia honako hau izan zen: metodologia aktiboak diziplinarteko lanetan erabiliko bagenitu, diziplinarteko lan horiek eredugarri bihurtu litezke eta metodologia aktiboek irakasleen ohiturak eta egiteko moduak aldatzeko bidea erakutsi lezakete, eta, era berean, komunikaziorako ezinbesteko gune bilakatuko lirateke. Bide horretatik irakasleen arteko koordinazioa hobetuko genukeela pentsatu genuen, denon artean lan bakar eta eragilea egin nahi baikenuen. Koordinazioa hobetzeaz gainera irakasleen prestakuntza ere hobetzeko aukera izan genezakeela uste genuen.

Unibertsitateko eremuan irakasleen arteko koordinazio falta oso arrunta da, eta, hala, Zabalzak (2003) dio unibertsitatearen ahulguneetako bat dela (irakasleen arteko koordinazio eskas hori). Ahulgunea da hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, irakasleak ez du irakasleen talde barruko identitaterik; hau da, ez da ikusten irakasle gisa talde zehatz batean barruan, "balkanizatuta" dagoelako (alegia, isolatuta dagoelako). Beste alde batetik, unibertsitateetan, Zabalzaren ikuspegitik, tradizionalki bakarkako lana bultzatu da, eta ez da bultzatu horrenbeste talde-lan integratua.

Gure ohiko planteamenduetan kontraesan asko daudela ikusten dugu: gure ikasleei eskatzen diegun arren lantaldetan aritzeko, gu ez gara gai gure eginbeharra taldean antolatzeke, ez dugulako trukaketa akademikorik egiteko ohiturarik. Lan honen atzean gaudenok uste dugu prestakuntza-lanak ez duela zentzurik, ez badago irakasleen arteko koordinazio minimo bat. Eta, beste alde batetik, uste dugu IKD ereduak indartu ditzakeela unibertsitatearekiko kide-tza-sentimendua eta identitatea.

Grisaleñak eta Campok (2010) diote koordinazioaren analisiaren helburua dela irakaslearen praktikaren inguruan hausnarketa bultzatzea, eta hori izango da

diziplinarteko lan horietan ere bilatuko duguna. Izan ere, hala, praktikak eta teoriak zentzua izango dute, testuinguru zehatz batean kokatuta dauden heinean. Esandakoa laburbiltzeko, esan dezakegu diziplinarteko lan horren helburua dela praktika bakoitzean teoriaren zentzua bilatzea, teoria horren inguruan teoria berriak sortzeko eta praktika egiteko moduak eraldatzeko.

IKD metodologiak aukera eman zigun diziplinarteko lanak metodologia aktiboan bitartez planteatzeko, eta eskolako irakasleen eta ikasleen artean zabaltzeko.

Metodologia aktiboan nondik norakoak hurrengo puntuan azalduko dira.

1.5. Irakaskuntza-metodologia aktiboak

Europako konbergentziak hainbat aldaketa eragin ditu ikasleen zein irakasleen jardueran. ECTS kredituen ezarpenak eta gaitasunen arabera curriculumak ikasleei begiratzen die. Ikasleak garatu behar ditu bere gaitasunak, "jakite hutsa"ren bidez barik, "egiten eta erabiltzen jakinez". Irakaslearen eginkizuna ere aldatzen da: irakasleak ezagutzaren igorle izatetik ikastea errazten duen bitartekaria izatera igaro behar du; modu berean, irakaskuntzak irakaslea ardatz duen hezkuntza izatetik ikaslea ardatz duen hezkuntza izatera igaro behar du.

Bestalde, teoriaren eta praktikaren arteko banaketa edo jakintzaren eta ekintzaren arteko aldea murriztu nahi ditu konpetentzien bidezko curriculumak. unibertsitateko prestakuntzari dagokionez, honako hauek dira gaitasunen oinarriko osagaiak:

- Ezagutzak, trebetasunak eta jarrera edo balioak integratzen dituzte.
- Jarduean bakarrik defini daitezke: jarduean garatu eta gaurkotzen dira, baina... *hausnarketaz lagunduta*.
- Testuinguru edo egoera jakin batera lotuta egoten dira.
- Auziak ebaztea ahalbidetzen dute, auzien irtenbide egokia erraztuz lan-egoera ezagun zein berrietan.

Ikaskuntza-prozesuei lehentasuna emateak ikasleen protagonismo berritua eta konpromiso handiagoa dakar. Horrek aldaketa eskatzen du ikaskuntzaren antolaketan, erabiltzen diren baliabide didaktiko eta pedagogikoetan, ikasleei eskatzen zaizkien zereginetan eta, era berean, ikaskuntza ebaluatzeko estrategietan. Laburbilduz, esan dezakegu erreforma honen muina dela ikaskuntza-prozesuetan zentratzea, hain zuzen, ikaslearen ikasketa autonomia sustatu eta orientatzen duten metodologia berriak erabiliz.

Canoren (2008) ustetan, benetan berria dena zera da: lortu nahi dugun gradudunaren profiletik abiatu garela ikasketa-planak diseinatzeko orduan. Profil horrek irakasle guztiak lotzen gaitu, eta behartzen gaitu denon artean pentsatzera zer ekarpen egin dezakegun irakasgai bakoitzetik gaitasun horiek garatzeko.

Ez da gauza berria proiektuen bidez lan egitea, kasuak eta portafolioak edo PBL (problemetan oinarritutako ikaskuntza) metodologia erabiltzea, wikiak, blogak eta ICTak gero eta gehiago erabiltzea, baina diziplina guztiak barne hartzen dituzten lan-proposamenak bilatu behar direla uste dugu.

Testuinguru horretan UPV/EHUK bultzatu duen IKD (Ikaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa) izeneko ereduak aipatu dugu, Ikaskuntza Kooperatiboaren ardatzak ikasleen ikaskuntza-prozesua sustatzea izan behar baitu. Hori lortzeko, metodologia aktiboek eta komunikazio-teknologiaren laguntzak oinarri garrantzitsua eskaintzen dutela kontuan izanda, gure diziplinarteko lanak metodologia aktiboak kontuan hartu behar dituela uste dugu.

Metodologia aktiboetan, ikaslea da irakaskuntzaren ardatza. Ikasleak bere ikaskuntzaren ardura izan behar du: informazioa bilatu, hautatu, aztertu eta ebaluatu, eta, gainera, paper aktiboa hartu bere ikaskuntzaren eraikuntzan, irakaslearekin eta gainerako ikasleekin etengabe hartu-emanetan arituz. Metodologia horiek ikaskuntza eraikuntza-prozesutzat hartzen dute. Irakaskuntza-metodologia aktiboen bidez, autozuzendutako ikaskuntza bultzatzen da, hau da, gaitasun metakognitiboen garapena. Autozuzendutako ikaskuntzan, ikasleek taldean lan egiten dute ikaskideekin elkarlanean, ideiak eta iritziak trukatzeko dituzte, eta ikasten dutena etengabe eztabaidatzen, argudiatzen eta ebaluatzen dute.

Horrez gainera, gaitasunetan oinarritutako ikaskuntzak beharrezkoa egiten du irakaskuntza etorkizuneko lanbidearen testuinguruan jartzea. Metodologia horien arabera, irakaskuntzak mundu errealeko auzien edo praktika profesionalaren testuinguruan oinarritu behar du. Irakaskuntza testuinguruan jartzeak ikaskuntzarekiko jarrera positiboa izaten eta motibatzen laguntzen du. Bestalde, ikasketa mota horrek egiten denaren inguruko hausnarketa bultzatzen duten metodologiak erabiltzea eskatzen du: ikasleak aztertu beharko du zer egiten duen, nola egiten duen eta zein diren lortu dituen emaitzak. Horrekin gaitasun konplexuena garatzen da: zentzu kritikoarekin bere jardunaren gainean ikasten ikastea.

Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU), hainbat metodologiaren aldeko apustua egin da: Auzietan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI), Kasuaren Metodoa (KM)

eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI), Ikaskuntza Kooperatiboarekin batera (IK).

Auzietan Oinarritutako Ikaskuntzan (AOI), auzi bat aurkezten da abiapuntu gisa, eta, askotan, taldea hura konpontzen saiatzen da (oso erraza izan daiteke; adibidez, txosten bat, kartel bat, emaitza esperimentalak, eta abar).

Kasuaren Metodoan (KM), bi aldaera aurkezten dira: lehenengoan, ikasleak ezagutzak bereganatu ostean planteatzen da kasua. Jarduera-proposamenaren xedea da irakasgai baten edo hainbat gairen gaineko ezagutzak integratzea eta egoera erreal batean aplikatzea. Bigarren aldaeran, kasua ikaskuntza-abiapuntu gisa planteatzen da, eta beraren ebazpena ikasleek garatuko dute, irakasleak gidatuta. Oro har, enuntziatua aztertzeke gaitasunak lantzen dira, eta, hortik abiatuta, erabakiak, iritziak eta ebaluazioak egiten dira.

Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzan (POI), neurri jakin bateko lana egiteke eskatzen da (irakasgai lauhileko batean garatzeko proiektu bakar bat izan daiteke, edo modulu bateko irakasgaiak barne hartzen dituen diziplinarteko proiektu bat, edo irakasgai bakar batean hilabetez landu beharreko proiektu bat...).

Ikaskuntza Kooperatiboa (IK) estrategia didaktiko bat da. Gela talde txikitik banatzen da, ikasleek modu koordinatuan eginkizun akademikoak bete ditzaten eta beren ikaskuntza gara dezaten.

Aukera guzti hauen artean Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren metodologia hautatu da bigarren lauhileko honetan diziplinarteko lanerako. Hori dela eta, metodologia honen ezaugarriak azalduko dira hurrengo lerroetan.


1.6. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (POI) defini daiteke esanez ikasleak mundu errealaren proiektu konplexuetan sartzen dituen ikaskuntza-esperientzia erakargarri multzo bat dela. Metodologia honen oinarria da ikasleek beren ikaskuntzaren ardura handiagoa hartzea, eta, hala badagokio, ikasgelan eskuratutako trebetasunak eta ezagutzak benetako proiektuetan aplikatzen dituzte.

Proiektuen metodoaren bidez, ikasleak egoera errealen aurrean jartzen dira, ikasten dutenaren bitartez, bizi diren gizartearekiko lotura handiagoa izateko; jardun horren bidez, trebetasunak eta ezagutza egoera errealetan garatu eta aplikatzen dira.

Era berean, kanpoko baliabide edo erakundeen laguntza ere jasotzen da eskolarloan; aztergai zehatz bateko adituena, adibidez.

Proiektuak garatzeko arlo desberdinetan ikasitakoa integratu behar da; hortaz, modu horretan eraikitzen duten ezagutza ez da ezagutza isolatua edo zatikatua izango.



2.irudia: proiektuen egitura Monterrey-ko metodologiaren arabera.

2. irudian ikus daiteke Monterrey-eko Unibertsitatean proiektuen bidez lan egiteko proposatzen den egitura. Proiektua fase desberdinetan garatzea proposatzen

da, hala nola, auziaren azterketa, auziaren ebazpena, ekoizpena eta azken txostena egitea.

De Miguel-en arabera (2006), proiektuen egitura lau fasetan antola dezakegu:

- Informazioa: ikasleek, iturri baten baino gehiagoren bidez, proiektua ebazteko beharrezkoa duten informazioa lortu behar dute.
- Planifikazioa: lan-plangintza egin, metodologia-prozedura egituratu, lanerako tresnak eta bitartekoak planifikatu, eta irtenbidea bilatzeko estrategia aukeratu behar da.
- Gauzatzea: ikasleek ikertu eta esperimendatuko dute; beren ekintza sortzaile, autonomo eta arduratsua aurrera eramango dute, eta egindakoaren gainean hausnartuko dute.
- Ebaluazioa: ikasleek lortutako emaitzak aurkezten dituzte, eta irakaslearekin batera eztabaidatzen dituzte.

2. MODULUAREN IZENA ETA IZANA

2.1. Moduluaren kokapena eta zentzua titulazioan

Modulua diziplinarteko irakaskuntza eredua da, zenbait diziplinaren arteko harreman koherentea bilatzen duena, helburu komun bat lortze aldera, hots, Eskola eta Curriculuma modulurako ezarrita dauden zeharkako gaitasunak lantzea.

Eskola eta Curriculuma izeneko modulua 2. modulua da, Haur Hezkuntzako titulazioaren egitarauan, eta lehenengo ikasturteko 2. lauhilekoan eskaintzen da.

2.2. Irakasgaiak eta haien ekarpen tematikoa moduluari

Modulua bost irakasgaiak osatzen dute (ikus 2. taula), moduluaren garapena ziurta dezaten. Aipatu dugu, titulazioaren diseinuan zeharkako gaitasunak lantzeko modua zehaztu zenean, modulu bereko irakasgaiak diziplinarteko lan bat garatzea proposatu zela.

2. taula: Eskola eta Curriculuma modulua osatzen duten irakasgaiak.

IRAKASGAIA	KREDITUAK
Didaktika Orokorra	6
Hezkuntzaren Psikologia	6
Musika Adierazpenaren Garapena eta Bere Didaktika I	6
Arte Plastikoak eta Ikus Kultura Haur Hezkuntzan I	6
Garapen Psikomotorra	6

Eskola eta Curriculuma modulurako, diziplinarteko 5 kredituko lana egitea erabaki da. Horrela, modulua osatzen duen irakasgai bakoitzak 1 kreditu emango du lan hori egiteko; hau da, 10 ordu presentzial eta 15 ordu ez-presentzial moduluko irakasgai bakoitzeko, guztira, 50 ordu presentzial eta 75 ordu ez-presentzial taldeko pertsona bakoitzeko.

Ebaluazioan, gehienez, bi puntuko kalifikazioa emango zaio haietako bakoitzean moduluko lanari.

Psikologiako eta didaktikako irakasgaiak dira moduluko didaktika espezifikoen oinarria, ezinbesteko abiapuntua ezagutza-arlo espezifikoen didaktikak ulertu ahal izateko. Moduluko Diziplinarteko Lanak (DAL) uztartuko ditu, irakasgai bakoitzean, alfabetatzeko edukiak, Haur Hezkuntzako etaparen ikaskuntza-irakaskuntzarako oinarrizko printzipioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-curriculum arauemailea, horiek guztiak erlazionatuz etapa horretako proiektuetan egiten diren ikaskuntza-proposamenekin.

Beste hitz batzuetan esanda, lanaren helburu nagusia hau izango da: curriculumak eta ikaskuntza-irakaskuntzaren printzipioak kontuan hartuz hainbat proiektu aztertzea eta balioestea.

Helburu hori lortzeko, baita moduluko gaitasunak garatzeko, irakasgai bakoitzak eduki multzo zehatz bat eskainiko du:

Didaktika Orokorra

- Etapako curriculumak
- Irakaskuntzaren eta curriculumaren teoriak
- Curriculumak diseinatu eta garatzea
- Diseinuaren elementuak

Hezkuntzaren Psikologia

Ikaskuntzari eta jakintza eraikitzeari buruzko teoriak

Eskolako ikaskuntza eta motibazioa

Taldekatzeak eta berdinen arteko harremanak

Autokontzeptua eta autoestimua: ikaskuntzarekin duten lotura

Musika Adierazpenaren Garapena eta Bere Didaktika I

Entzumen musikala eta musika-hizkuntza

Ahotsa eta kantua

Gorputzaren mugimendua eta dantza

Musika-tresnak

Arte Plastikoak eta Ikus Kultura Haur Hezkuntzan I

Ikus-hizkuntzak

Arte plastikoak. Ikus-kultura

Inguruaren pertzepzio plastikoa, begirada heztea

Plastikarako teknikak, prozedurak, baliabideak. Egokitze didaktikoaren mailak

Garapen Psikomotorra I

Garapen psikomotorraren oinarriak

Gorputza eta gizartea

Gorputz-adierazpena eta -komunikazioa

2.3. Ikasmilako eta moduluko gaitasunak

Lehendabiziko ikasmilako garatu beharreko gaitasunak lau dira:

1. Haur Hezkuntza ezagutzea eta kokatzea egungo hezkuntza-sisteman, gure testuinguruan, Europako testuinguruan eta nazioartekoan jarduera berritzaileak ezagutzeko eta alderatzeko eta balioen hezkuntzari arreta jartzeko.
2. Tutorearen eta orientatzailearen eginkizunak identifikatzea eta betetzen jakitea, ikasle bakoitzak bere inguruarekin duen harremana balioetsita eta gatazken konponbide baketsuaren alde eginda.
3. 0-6ko tartean hezkuntza-prozesuen eta ikaskuntzaren oinarritzko printzipioak ulertzea eta aplikatzea familian, gizartean eta hezkuntzan, informazioa bilatzeko eta erabiltzeko tekniken bidez.

4. Etapako esperientzia-arloen oinarrizko printzipioak ezagutzea eta aztertzea banaka nahiz taldeka, EAEko bi hizkuntza ofizialetan eskuratutako oinarrizko komunikazio- eta hizkuntza-gaitasunak erabiliz.

Ikasmilako lau gaitasun zabal horietatik modulu honetan bereziki hirugarrena eta laugarrena landuko dira, 3. taulan zehaztu bezala, modulu honetako gaitasunak ikasmilako gaitasunekin gurutzatzen dira:

3. taula: Modulu honetako gaitasunak eta ikasmilako gaitasunak gurutzatuta.

Moduluko gaitasunak	Ikasmilako gaitasunak			
	1	2	3	4
M1. Haurtzaroko (0-6) irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen oinarrizko printzipioak identifikatzea eta ulertzea, etapa horren curriculuma eta ikasmaterialak aztertzean aplikatzeko.			X	
M2. Ikasmaterialak balioestea, psikologiaren, pedagogiaren, didaktika espezifikoaren eta hezkidetzaren ikuspuntutik, bestelako aukerak proposatzeko.				X
M3. Idatzizko txostenak egitea irakaskideekin komunikatzeko.				X
M4. Ikasle-lantalde batean aktiboki parte hartzea lankidetzan aritzen ikasteko.				X

2.4. Moduluaren helburua

Moduluko lana amaitzean, ikasleek Haur Hezkuntzako proiektu didaktikoak aztertzen jakin behar dute, irakasgaien estandarretara nahiz curriculumeko araudietara egokitzen diren neurtu ahal izateko, eta, hala dagokionean, beste aukera batzuk proposatzeko.

Ikasleek hobeto ezagutuko dituzte bai etapako bai Haur Hezkuntzako curriculumaren oinarrian dauden hastapen psikologiko zein pedagogikoak. Halaber, ikaste-irakaste prozesuko faktoreak ulertu ahal izateko gaitasunak garatuak izango dituzte. Horrez gainera, oinarrizko gaien buruzko ikuspegi zabalago eta bateratzaileagoa eskuratuko dute, didaktika espezifikoak zein curriculum arauemaileak ezagutzen hasiko dira, eta, hala, beren lanbidea hobeto ulertu ahal izango dute.

Bestalde, haurtzaroan jakintza nola eraikitzen den, curriculumeko gomendio arautzaileak nolakoak diren, eta aztertutako proiektu didaktikoek proposatzen dituzten gaitasun, eduki, metodologia eta ebaluazioa hezkidetzaren printzipioen zein gai espezifikoaren estandarren ikuspegitik egokiak diren aintzat hartuta, proiektu bat

beste bat baino hobea zergatik den argudiatzen jakingo dute. Argudiatzea proiektuen gaineko azterketan, alderaketan eta hausnarketan oinarrituko da, eta ikasleak gai izan behar du hautatutako aukera entzule adituen aurrean defendatzeko. Bere komunikazio-gaitasuna ahoz eta idatziz landuta izan beharko du, hainbat bitarteko eta euskarriren bidez.

3. DIZIPLINARTEKO LANA (DAL)

3.1. Deskribapena

Moduluko jarduera proiektu didaktikoen azterketan oinarritzen den lankidetzalana da. Lan hori egiteko, ikasleei hainbat unitate didaktiko eta proiektu eskaintzen zaizkie, bai eskoletan erabiltzen direnak, bai aldizkari edo hedabide espezializatueta argitaratuta daudenak. Zergatik unitate didaktikoak eta proiektuak? Ikasleentzat motibagarriak direlako, ikasteko prozesuan parte-hartze aktiboa sustatzen dutelako eta haien esperientzietara eta interesetara hurbiltzen direlako, esperimentazioa sustatzen dutelako eta emaitza desberdinak lortzeko aukera eskaintzen dutelako, eta, azken finean, horiek direlako gaur egun irakaskuntzan hedatuen dauden bi ikasmaterial motak.

Lanari hasiera emateko ikasleak erreala izan zitekeen egoera profesional baten aurrean jartzen dira:

"Hezkuntzako curriculumetan dauden ikuspegi berriak kontuan izanik, zeinak bizitzarako gako diren gaitasunen garapenean oinarritzen baitira, eta Berritzeguneen (irakasleentzako baliabide- eta aholkularitza-zentroak) aholkularitza-jasotako oharpenei jarraikiz, Itsasmendi Haur Eskola ikastegiko Haur Hezkuntzako irakasle taldeak egun erabiltzen duen metodologia birplanteatzea erabaki du 0-3 ziklorako eta 4-6 ziklorako.

Erabakiak hartu aurretik, beharrezkotzat jotzen dute Haur Hezkuntzan gaitasunak lantzeko beste ikastegietan erabiltzen ari diren ikuspegi metodologikoei buruzko informazioa eskuratzea.

Horretarako, hainbat ikasmaterial aztertuko dute, curriculum-diseinuaren oinarritzko osagaiak nola lantzen diren jakite aldera: gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa aztertuko dituzte. Irakasle talde bakoitzak ikasmaterial bat aztertu, eta idatzizko txosten baten jasoko ditu ondorioak.

Lortutako datuak alderatu ahal izateko, ondoko urratsen arabera gidoia ezartzea erabaki dute: aztertu, balioetsi eta hobetzeko aukerak proposatzea, psikologiaren,

pedagogiaren, didaktika espezifikoen eta hezkidetzaren printzipioak zein hezkuntza-planteamenduak aintzat hartuz”.

Oro har, DALen hautatutako proiektuek garatu nahi dituzten gaitasunak eta edukiak aztertuko dira, baita proposatzen dituzten metodologia eta ebaluazio-sistema ere, irakasgai bakoitzetik, curriculum-diseinutik eta hezkidetzatik planteatzen direnekin alderatuz. Ondoren, aztertutako proiektuak balioetsiko dira, hiru alde positibo eta hobetzeko beste hiru nabarmenduz, hobetu daitezkeen alderdietan bestelako proposamen didaktikoak aurkeztuz eta proposamen horiek arrazoituz.

3.2. Lana egiteko jarraibideak

Irakats-jarduera planifikatzeko aukeratu behar diren proiektuak aztertzeko, curriculumaz ezagutzea ezinbestekoa da; curriculumak eskolan jokatzen duen papera argitzea izango baita modulu-lan honetan jorratuko dena. Hortaz, proiektua aurrera eramanez ahal izateko, ikasleek honako hauek ezagutu eta erabili beharko dituzte:

- 0-6 urte arteko haurren ezaugarriak.
- Gaitasunak zer diren eta zertan datzan oinarritzko gaitasun bakoitza.
- Haur Hezkuntzako esperientzia-eremuen eta, batez ere, moduluko eremuen curriculumaz:
 - sarrera (arloaren egitura eta iradokizun metodologikoak)
 - etapako helburuak
 - eduki multzoak
 - ebaluazio-irizpideak
- Hastapen metodologiko orokorrak eta landuko diren esperientzia-eremuenak.
- Hezkidetzatik datozen orientabideak.

3.3. Material lagungarriak

Aipatu diren puntuak garatzeko orduan, laguntza bezala ikasleek era askotako materialak izango dituzte eskuragarri:

- oinarritzko ikasmaterialak, hau da, hautatu eta aztertu beharko dituzten proiektuak: ikasleek hainbat proiekturen artean egingo dute aukera (bi

hizkuntza ofizialetan). Ikastaldeari eskaintzen zaizkion proiektu horiek, irakasle-taldeak aldeztetik aztertzen ditu ikasturte bakoitzean.

- proiektu baten analisia: adibide gisa, moduluko irakasleok egindako oinarritzko analisia.

- "Eskola eta curriculuma. Haur Hezkuntzako moduluaren diziplinarteko jarduerarako ikasleentzako gida": gida honetan moduluaren planteamendu orokorrak gainera —helburuak, gaitasunak, metodologia, ebaluazioa eta bibliografia—, azterketan laguntzeko galdera sortak eta taulak agertzen dira.

- "Eskola eta curriculuma. Moduluko tutoretza orokorraren gida" (X. eranskina): dokumentu honetan, kronogramarekin batera, jasoko dira taldeak sortzeko moduak, eta lana aurrera eramateko egin behar diren zereginak eta tutorearekin egingo diren hiru saioen nondik norakoak.

- beste material lagungarri batzuk: lan-proiektuen eta ikasunitateen ezaugarriak eta aldeak modu labur batean azaltzen eta desberdintzen dituen dokumentua (X. eranskina) eta horiei buruzko artikulua², Haur Hezkuntzako oinarritzko curriculumarekin eta oinarritzko gaitasunekin batera.

Ikasmaterial horiek guztiak moduluarentzat berariaz sortutako mindomoan eta fotokopia-dendan aurki ditzakete ikasleek.

3.4. Taldeak eratzea

Talde txikietan garatzen dira proiektuak, ardurak banatzeko eta harremana bistaratzeko. Lankidetzan arituta, lan-zama handiagoa jasan daiteke, eta amaierako produktu eraginkorragoa da. Beraz, taldeak lan-zama hori banatzen, planifikatzen, koordinatzen... ikasi behar du; irakasleak horretan lagunduko die, eta ekarpen teorikoak doitzeaz arduratuko da.

Lauhilekoaren hasieran moduluko lana egiteko 4 ikasleko lantaldeak osatuko dira. 3 laguneko taldeak matematikoki ezinbestekoa denean baino ez dira eratuko, eta erabaki hori moduluko koordinatzailearen esku egongo da. Moduluko lana egitean ebaluatua izateko, derrigorrezkoa izango da ikaslea presentziala izatea. Euskarazko taldeetan, azpitalde bereko (01 edo 02) ikasleak izango dira taldeetan.

Taldeak osatu ondoren, kideen zerrenda bidali beharko dute helbide elektronikoa batera, ikastaldearen izena, taldekideen izen-abizenak eta harremanetarako taldekidearen izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono-zenbakia zehaztuz.

² Majó, F.: *Por los proyectos interdisciplinarios competenciales*.

Mezua bidaltzeko epea, lauhilekoaren 2. asteko azken klase-egunean bukatuko da.

3.5. Tutorizazioaren antolaketa

Lantalde bakoitzari tutore bat esleituko zaio, prozesuan zehar lana garatzen lagunduko diona. Lantalde bakoitzak, ikastorduen barruan, ordubeteko 3 tutoretza-saio egingo ditu tutorearekin. Era berean, ikasleek ikastorduz kanpoko zereginak ere egin beharko dituzte. Saio zein zeregina horiek eta irakasgai bakoitzeko tutoretza berezia (ordubeteko beste zazpi tutoretza-saio orokor) funtsezkoak izango dira, moduluko lana behar bezala egin ahal izateko.

Tutoretza lau fasetan bideratuko da:

0. saioa: lauhilekoaren 1. egunean moduluen aurkezpen-saioa izango da.
1. saioa: lauhilekoaren 4. astean izango da, eta proiektua aukeratzea eta aukera hori justifikatzea izango ditu helburu.
2. saioa: lauhilekoaren 7. astean egingo da. Saioaren helburua aukeratutako proiektu didaktikoaren azterketa egitea izango da.
3. saioa: lauhilekoaren 12. astean egingo da, aztertutako proiektuaren balioespena eta hobekuntza-proposamenak jasotzeko xedearekin.

Tutoretza-saioak hasi aurretik eta horiek irauten duten bitartean, 5 zeregin prestatu dira (0tik 4ra). Saio horietako edukia hurrengo puntuan azalduko da.

3.6. Diziplina Arteko Lanaren (DALaren) faseak, tutorizazio saioak eta emateko modua

Moduluko proiektua aurrera eramateko lau fase, edo pauso, proposatzen dira:

1. Proiektua hautatu eta justifikatu
2. Hautatutako proiektua aztertu
3. Aztertutako proiektua balioetsi, eta hura hobetzeko proposamenak egin.
4. Idatzizko txostena osatu

Fase bakoitzean sortutako dokumentuak moduluko azken txostenaren oinarria izango dira —tutoretza-jardueretan eta ikasleek ikasturtean zehar garatutako ezagutza berrien ondorioz beharrezkoak diren zuzenketak egin ondoren—.

1. fasea: Proiektua hautatu eta justifikatu

Hasierako fase honetan, haien esku jartzen ditugun proiektu guztietatik, lantaldeko kide bakoitzak bat aukeratuko du. Horrela, guztira 4 izango dira, bat kide bakoitzarentzat. Lehenengo tutoretza-saioan, lantaldeak bikoteka bananduko dira; bikote bakoitzak —eta bikoteko ikasle bakoitzak— bi proiektu balioetsi eta bat hautatuko du, adostasunez. Bikote bakoitzak bere hautua defendatu, eta ondorioak azalduko dizkio lantaldeko beste bikoteari. Ondorioak alderatu ondoren, lantaldeak adostuko du zer proiektu aztertuko duen.

Hautaketa-prozesu hori idatziz azalduko da DALari buruzko txostenaren lehenengo fasean, alegia, "Sarrera"n. Han, ondoko alderdi hauek agertuko dira:

- hasieran hautatutako lau proiektuen deskribapen laburra
- proiektuen arteko alderaketa: curriculum-ezaugarriak (gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa) eta hezkidetzaren planteamenduak
- proiektuen hautaketari buruzko justifikazio-argudioa

Moduluko lanaren "Sarrera" eskolaldiaren 5. astean aurkeztu beharko zaio tutoreari.

2. fasea: Hautatutako proiektuaren azterketa

Behin proiektua hautatuta, bigarren fase honetan horren analisiari ekingo zaio. Tutorearekin 2. saio bat izango dute, proposatutako auzia berrikusteko: lehenengo fasean islatutako ideiak berriro zehaztuz eta laburbilduz. Horretaz gain, tutoreak azterketa-fasea aurkeztuko du, aukeratutako materialaren ezaugarriak berrikusiz, zalantzak argituz eta, lehen aipatu diren material lagungarrien artean, irakasleek prestatutako adibidea aurkeztuz.

Atal honetan, ikasleek haurtzaroko (0-6) irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen oinarrizko printzipioak identifikatu beharko dituzte, eta, diziplinetatik eta hezkidetzatik, ikasmaterialaren analisi koherentea egin beharko dute.

Taldeka, proiektuaren azterketa egingo da irakasgai bakoitzaren eta hezkidetzaren planteamenduen ikuspuntutik, honako hauek kontuan izanez:

- esperientziaren testuingurua
- helburuak eta gaitasunak
- edukiak
- metodologia

- ebaluazioa

Lana egiteko, ikasleek eskuragarri izango dituzte analisia egiteko lagungarriak diren oinarrizko kontzeptuak eta aldeak nabarmentzen dituzten galderak eta taulak, "Eskola eta curriculum. Haur Hezkuntzako moduluaren diziplinarteko jarduerarako ikasleentzako gida"ren atal batean (II. eranskina). Horretaz gainera, moduluan parte hartzen duten irakaslegaiak, klaseko 7 ordu presentzialetan, beren ikuspegitik garrantzitsuak diren edukiak edo ikuspegiak esplizitatuko dituzte; beharrezkotzat jotzen denean, material lagungarri bereziak ere prestatuko dituzte.

Lanaren fase honetan, azterketaren ondorioak "Azterketa"n jasoko dira, alegia, txostenaren bigarren atalean, eta ikastaldiaren 10. astean aurkeztuko dituzte.

3. fasea: Aztertutako proiektua balioetsi eta hura hobetzeko moduak proposatu

Tutoretzako 3. saioa egin aurretik, ikasleek, banan-banan, proiektuetan atzemandako hiru indargune eta hiru ahulgune nabarmendu beharko dituzte era arrazoituan: zailtasunak, zalantzak eta ustezko irtenbideak idatziz. Saio honen helburua izango da zeregin honetan sortutako auzietarako irtenbideak trukatzea eta partekatzea, materialen indarguneak nabarmenduz eta ahulguneetarako hobekuntzak proposatuz.

Horren ondorioz, azken fase honetan lehengoz aztertutako proiektuen balioespen justifikatua egingo da, eta, bigarren pauso batean, hezkuntzaren oinarriak kontuan izanez, hura hobetzeko proposamenak garatuko dira.

Proiektuetan proposatzen diren gaitasunak, edukiak, metodologia, ebaluazioa eta hezkidetzaren planteamenduak balioesteko, kontuan izan beharko dira honako alderdi hauek:

- Irakasgaien, curriculum-diseinuaren eta hezkidetzaren planteamenduekiko egokitzapena.
- Askotariko gaitasunen eta esperientzia-eremuen eduki, jarduera, ebaluazio-irizpide eta tresnen arteko oreka.
- Aztertutako ikasmaterialak eskaintzen duen berrikuntza-maila.

Balioespen objektibo horretan oinarrituz, ikasleek erabaki beharko dute zein diren ikasmaterialaren hiru alderdi on eta hobetu daitezkeen beste hiru alderdi. Horiek hobetzeko, gainera, beste proposamen didaktiko batzuk egingo dituzte, esan bezala, hezkuntzaren oinarriak kontuan izanez.

Fase honetan, besteetan bezala, idatziz azalduko da DALari buruzko txostenaren azken atalean, alegia, "Balioespen"ean.

4. fasea: Diziplina Arteko Lanari buruzko txosten idatzia

Lehen aipatu bezala, azken txostenean aurreko hiru faseak eta horien ondorioak jasoko dira, tutoretza-jardueretan eta ikasleek ikasturtean zehar garatutako ezagutza berrien ondorioz beharrezkoak diren zuzenketak edo lanketak eginez.

Txosten idatziaren egitura, beraz, hau izango da:

1. Sarrera
2. Azterketa: gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa.
3. Balioespena eta beste aukera batzuk: curriculumari eta hezkidetzari dagozkienak
4. Erreferentziak
5. Eranskinak

Azken txostena, ikastaldiaren 15. astean aurkeztuko zaio tutoreari, posta elektronikoaren bidez bidaliz.

4. DIZIPLINA ARTEKO LANAREN (DAL) EBALUAZIOA

Ebaluatzeko bi modalitate daude, bata presentzialak diren ikasleentzat, eta bestea, presentzialak ez diren ikasleentzat (ikasle presentziala izango da, gutxienez, klaseen % 75era doana, eta, ikasle ez-presentziala, kopuru horretara iristen ez dena).

4.1. Ikasle presentzialentzako ebaluazioa

Ikasle presentzialen kasuan, DALa egin beharko dute. DALa egiteak, amaierako txostena egitea dakar, 4 ikasleko taldetan. Lana egin ahal izateko, ikasle presentzialek lan-kronograma zehatza izango dute erreferentzia gisa, diziplina bakoitzeko irakasgida

bakoitzean zehaztua. Azken emaitza ebaluatzeaz gainera, prozesua ere ebaluatuko da. Arestian azaldu den moduan, Eskola eta Curriculumari dagokion DALa, lau fasetan garatzen da. Moduluan parte hartzen duen irakasle bakoitzak, hainbat lantalde tutorizatuko ditu, lau fase horietan zehar, lanaren garapena bideratzeko. Tutorizazio saio bakoitza DALaren atal bat garatzera bideratuta egongo da. Tutoreak atal bakoitza jasoko du eta, dagozkion zuzenketak proposatu ondoren, taldeari itzuliko dio hobetu dezan. Taldearen esku egongo da proposatutako hobekuntzak egitea eta lanaren azken txostenean integratzea ala ez.

DALaren kalifikazioa, irakasgaiaren kalifikazioaren 1/5 izango da (2 puntu), eta irakasgai bakoitzaren ebaluazioari gehituko zaio. DALaren kalifikazioa berbera izango da taldeko ikasle guztientzat.

Tutore bakoitzak tutorizatu dituen lanak zuzenduko ditu, eta kalifikazio bana jarriko die. Ondoren, beste irakasle bati pasatuko dizkio lanak bigarren ebaluazioa egin dezan jakin gabe aurreko kalifikazioa (bikote itsuen bidezko ebaluazioa). Hortaz, irakasle bakoitzak berari egokitu zaizkion taldearen lanak zuzentzeaz gain, beste irakasle batenak ere zuzenduko ditu. Kalifikazioa lana zuzentzen duen bikotearen artean adostu beharko da. Arloekin lotutako zalantzak sortuko balira, irakasgaiaren irakaslearekin argituko dira.

Ager daitezkeen hainbat egoeraren aurrean hartutako erabakiak:

- DALa gainditu gabe eta irakasgaia gaindituta: irakasgai bakoitzaren gidan zehazten da modulu-lana gakoa den irakasgai hori gainditzeko. Gakoa bada, DALean zeuden hutsuneak eta hobetu beharreko alderdiak zuzendu beharko ditu ikastaldeak. Gakoa ez bada, ez aurkeztu moduan agertuko dira eta, aurrekoa kasuan bezala, DALa hobetu beharko dute. Hala ere, horrela eskatuz gero, aukera emango zaie lehenengo deialdian, moduluan daukaten kalifikazioa (suspendituta izan arren) irakasgaiaren nota orokorrari batzeko.
- Modulu-lana gaindituta eta irakasgaia gainditu gabe: lanaren kalifikazioa bigarren deialdira arte bakarrik gordeko da, eta berriz egingo da irakasgaiaren azterketa.
- Modulu-lana eta irakasgaia gainditu gabe: 2. deialdiko azterketan, irakasgaiaren azterketaz gainera, ikasleak DALean zeuden hutsuneak eta hobetu beharreko aspektuak zuzendu beharko ditu, edo/eta azterketan modulu-lanarekin lotuta egingo diren galderei erantzun beharko die.

4.2. Presentzialak ez diren ikasleentzako ebaluazioa

- Presentzialak ez diren ikasleak ebaluatzeko irakasgai bakoitzeko proba espezifikoak edo/eta galderak erabiliko dira.
- Irakasgai bakoitzeko proba batzuk DALari buruzkoak izango dira.
- DALari buruzko probek gehienez 2 puntu jasoko dute (irakasgaiaren kalifikazioaren 1/5).

4.3. Eskola eta Curriculuma moduluko DALaren errubrika

DALaren zuzenketa bateratua egin ahal izateko, ezinbestekoa da ebaluazio-irizpideak adostea. Eskola eta Curriculuma moduluan aritu den irakasle taldeak hainbat ebaluazio-irizpide finkatu ditu lanaren ebaluazioa ahalik eta modu objektiboenean egin ahal izateko. Ebaluazio-irizpideak 4. taulako errubrikan finkatu dira.

4. taula: DALaren ebaluaziorako errubrika

ERRUBRIKAREN HAZTATZEA Proiektuen azterketa: 4 puntu				
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
1.1. 0-6 aldiko hezkuntza- eta ikaskuntza-prozesuen oinarritzko printzipioen identifikazio eta erabilera zuzena ikasmaterialaren azterketan. (M1)	Kostata identifikatu dira oinarritzko printzipioak. Kontzeptuzko erroreak daude erabiltzean. Ikasmaterialak proposatutako hezkuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan parte hartzen duten diziplinen arteko harremanak ez dira identifikatu.	Ia oinarritzko printzipio guztiak identifikatu dira. Nahasteren bat bada, erabiltzean. Identifikatu dira diziplinarteko harreman batzuk, haien adibiderik eman gabe.	Oinarritzko printzipio guztiak zuzen identifikatu dira. Zuzen erabili dira. Identifikatu dira diziplinarteko harreman nabarmenenak, eta haien adibide batzuk eman ere.	Oinarritzko printzipio guztiak zuzen identifikatu dira. Zuzen erabili eta haien arteko erlazioak ezarri dira. Sakondu da diziplinarteko harremanak deskribatzen, eta haien adibideak eman dira.
1.2. Informazioa bilatu eta kudeatzeko teknikak erabiltzeko eraginkortasuna: jasotako datuen garrantzi-maila eta informazioa kudeatzeko era. (M1)	Lortutako informazioa gutxi eta azalekoa da. Lortutako informazioa antolatu gabe aurkezten da txostenean.	Datu esanguratsu batzuk lortu dira. Lortutako informazioa eskas antolatua aurkezten da.	Datu esanguratsu asko lortu dira. Lortutako informazioa antolatuta aurkezten da, baina ez dator bat txostenerako eskatutako egiturekin.	Datu esanguratsu guztiak lortu dira. Lortutako informazioa antolatuta aurkezten da txostenerako eskatutako egituraren arabera.
1.3. Hautatutako ikasmaterialean agertzen diren Haur Hezkuntzako esperientzia-eremuen oinarritzko printzipioak aztertzeko sakontasun- eta xehetasun-maila, eta etaparen curriculumarekin dituzten erlazioen identifikazio zuzena. (M1)	Ikasmaterialaren deskribapen azalekoa egin da. Ez da argudiatu ikasmaterialaren garrantzi-maila curriculumaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Ia ez dira identifikatu ikasmaterialean agertzen diren esperientzia-eremuetako oinarritzko printzipioak. Ez dira identifikatu etaparen curriculumarekin dituen harremanak.	Ikasmaterialaren deskribapen orokorra egin da. Argudiatu da ikasmaterialaren garrantzi-maila curriculumaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Identifikatu dira ikasmaterialean agertzen diren esperientzia-eremuetako ia oinarritzko printzipio guztiak. Bada nahasteren bat etaparen curriculumarekin dituen harremanak identifikatzerakoan.	Ikasmaterialaren deskribapen aski xehea egin da. Argudiatu da ikasmaterialaren garrantzi-maila curriculumaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Identifikatu dira ikasmaterialean agertzen diren esperientzia-eremuetako oinarritzko printzipio guztiak. Zuzen identifikatu dira curriculumarekin dituen harreman nabarmenenak.	Ikasmaterialaren deskribapen xehea egin da. Argudiatu da ikasmaterialaren garrantzi-maila curriculumaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik. Sakondu da ikasmaterialean agertzen diren esperientzia-eremuetako oinarritzko printzipioen azterketan. Zuzen identifikatu dira curriculumarekin dituen harreman guztiak.
1.4. Ikasmaterialaren gaineko azterketaren sakontasun- eta xehetasun-maila hezkidetzaren ikuspuntutik. (M1)	Ia ez dira identifikatu ikasmaterialean agertzen diren hezkidetz-planteamenduak.	Ikasmaterialean agertzen diren hezkidetz-planteamendu batzuk identifikatu dira, haien adibiderik eman gabe.	Ikasmaterialean agertzen diren hezkidetz-planteamendu nabarmenenak identifikatu dira, eta haien adibideak eman ere.	Sakondu da ikasmaterialean agertzen diren hezkidetz-planteamenduen azterketan, adibideak emanez eta horien gainean hausnartzuz.

ERRUBRIKAREN HAZTATZEA				
Balioespena eta hobetzeko proposamenak: 4 puntu				
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
2.1. Ikasmaterialari buruzko balioespenen argudiatze koherentea, psikologiaren, pedagogiaren, arloetako didaktiken eta hezkidetzaren ikuspuntutik. (M2)	Ia ez dira kontuan hartu diziplinen eta hezkidetzaren planteamenduak.	Diziplinen eta hezkidetzaren planteamendu bakar batzuk hartu dira kontuan.	Diziplinen eta hezkidetzaren planteamenduetan oinarrituz argudiatu da.	Diziplinen eta hezkidetzaren planteamenduetan oinarrituz argudiatu da, eta haien arteko harremanak ezarri dira.
2.2. Aztertu material didaktikoa hobetzeko proposamenen berrikuntza- eta egokitzapen-maila hezkuntzaren oinarritzko printzipioei dagokienez. (M2)	Ez da hobetzeko proposamen berritzailerik egi aztertutako alderdien aurrean. Proposamenak ez dira hezkuntzaren oinarritzko printzipioetara egokitzen.	Hobetzeko proposamen berritzaileren bat egin da aztertutako alderdiren baten aurrean. Hezkuntzaren oinarritzko printzipio batzuetara egokitzen dira.	Hobetzeko proposamen guztiak berritzaileak dira. Hezkuntzaren oinarritzko printzipioetara egokitzen dira.	Hobetzeko proposamen guztiak berritzaileak dira. Hezkuntzaren oinarritzko printzipioetara egokitzen dira. Eremuen edo irakasgaien arteko harremanak barne hartzen eta bultzatzen dituzte.
ERRUBRIKAREN HAZTATZEA				
Txostenaren aurkezpena: 1 puntu				
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
3.1. Hizkuntzaren erabilera zuzena: ortografia, sintaxia, hiztegi orokorra eta hiztegi teknikoak. (M3)	Sintaxiko, ortografiako edo puntuazioko akatsek zaildu egiten dute txostenaren irakurketa. Hiztegi orokorra eskasa da. Hiztegi teknikoak erabiltzean akatsak daude.	Sintaxiko, ortografiako edo puntuazioko akats batzuek zaildu egiten dute txostenaren irakurketa. Hiztegi orokorra zuzen erabili da. Hiztegi teknikoak gutxi erabili da.	Sintaxiko, ortografiako edo puntuazioko akatsen bat bada, baina ez du zailtzen txostena irakurtzea. Hiztegi orokorra zuzen erabili da. Hiztegi teknikoak zuzen erabili da.	Ez dago akatsik sintaxian, ortografian eta puntuazioan. Hiztegi orokorra zuzen eta aberats erabili da. Hiztegi teknikoak zuzen, ugari eta aberats erabili da.
3.2. Lanaren aurkezpen egokia: ordena, testuak eta irudiak tratatzeko oinarritzko programa informatikoen erabilera zuzena. (M3)	Aurkezpen eskasa. Eduki antolatua gabea: tituluak eta baliabide tipografikoak erabiltzean akatsak. Programa informatikoen erabilera eskasa. Ez dakar dokumentazio ikonikorik.	Aurkezpen onargarria. Edukia oso antolatua du; tituluak eta baliabide tipografikoak erabiltzean akatsen bat. Programa informatikoen erabilera zuzena. Dokumentazio ikoniko gutxi dakar.	Aurkezpen ona. Eduki aski antolatua, txostena egituratzeko tituluak eta baliabide tipografikoak erabiliz. Programa informatikoen erabilera zuzena. Nahiko dokumentazio ikonikoa dakar.	Aurkezpen bikaina. Txostena ongi antolatua, lana egituratzeko titulu eta baliabide tipografikoak erabiliz. Programa informatikoen erabilera zuzena. Dokumentazio ikoniko osoa dakar.

ERRUBRIKAREN HAZTATZEA**Talde-lana: 1 puntu**

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	Hobetu behar (0-4.99)	Onargarria (5-6.99)	Lan ona (7-8.99)	Lan bikaina (9-10)
4.1. Lantaldearen funtzionamendu eraginkorra, taldekideen parte-hartze aktiboa eta arduratsua, zereginen banaketa orekatu eta kooperatiboa, eta aurkitutako zailtasunak konpontzeko autonomia. (M4)	<p>Taldearen funtzionamendua ez da eraginkorra izan:</p> <p>Arduren banaketa taldekideen artean ez da orekatua izan.</p> <p>Denbora eta zereginak ez dira ondo kudeatu, ezarritako epeak ez dira bete.</p> <p>Laguntza behar izan da aurkitutako zailtasun guztiak gainditzeko.</p>	<p>Taldearen funtzionamendua eraginkortasun gutxikoa izan da:</p> <p>Arduren banaketa taldekideen artean orekatua izan da.</p> <p>Denbora eta zereginak ez dira ondo kudeatu, ezarritako epeak ez dira bete.</p> <p>Laguntza behar izan da aurkitutako zailtasun gehienak gainditzeko.</p>	<p>Taldearen funtzionamendua aski eraginkorra izan da:</p> <p>Arduren banaketa taldekideen artean orekatua izan da.</p> <p>Denbora eta zereginak ondo kudeatu dira, ezarritako epeak bete dira.</p> <p>Laguntza behar izan da aurkitutako zailtasunen bat gainditzeko.</p>	<p>Taldearen funtzionamendua oso eraginkorra izan da:</p> <p>Arduren banaketa taldekideen artean orekatua izan da.</p> <p>Denbora eta zereginak ondo kudeatu dira, ezarritako epeak bete dira.</p> <p>Aurkitutako zailtasunak modu autonomoan konpondu dira.</p>

5. MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

- Ikasle batek irakasgai bat baliozkotuta baldin badauka, baliozkotuta izango du baita ere hari dagokion moduluaren partea. Gainerako taldekideek moduluan irakasgai horrek dituen zereginak hartuko dituzte beren gain.
- Eskola presentzialen portzentajea betetzen ez bada, irakasgaietan egindako planteamenduaren logika mantendu nahi da; hau da, modulua 5 irakasgaiz eratua dagoela kontuan izanik (% 100), horietako batean ez betetzeak esan nahi du, ikaslea agertu dela irakasgaien % 80an, eta horrek erakusten du ikasle presentziala dela. Irakasgai batean baino gehiagoan ez betetzeak automatikoki ikasle presentziala ez izatea ekarriko luke.
- Presentziala ez den ikasleren batek DALa egiteko nahia agertuko balu, lantalde batean parte hartu ahal izango du, taldeak hala onartzen badu. Hori bere ikaskuntzarako tresna gisa lagungarria izango zaio, halaber, beraren parte-hartzea ez da ebaluatuko azterketan modulua ebaluatzeko frogak edo/eta galderak ebatzi beharko baititu ezinbestean.

6. EPILOGOA (LANAREN BALIOESPENA)

Moduluko lana "bizirik" dagoela esan dezakegu. Alde batetik, ikasturtean zehar moldaketak egin dira beharren arabera; bestetik ikasturtea bukatzean irakasle talde guztia bildu egin da ebaluazio-saioa egiteko. Bilera horretan inkesten bitartez lortutako ikasleen iritziak eta irakasleriak hausnartutako alde positiboak eta negatiboak kontuan izan dira. Gogoeta horren bitartez datorren urteari begira beharrezkoak diren zuzenketak eta hobekuntzak egingo dira.

Laburbilduz, 4 item kontuan izan dira hausnarketa hau egiteko: gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa.

Gaitasunak direla eta, balioespena oso positiboa izan da: modulukoak ikasturteko gaitasunekin bat datoz, eta haien formulazioa oso "erabilgarria" dela esan daiteke. Hala eta guztiz ere, oraindik hobetu ahal dira, gehiago laburbilduz eta sinplifikatuz.

Ikasleek gaitasunak eskuratu dituzte, nahiz eta batzuek besteek baino maila hobea lortu edo zailtasun gehiago eduki.

Beraz, oro har, **edukiak** ondo landu dituzte. Gainera, landutako edukiei esker, ikasleek curriculumaren terminologiaz jabetu dira, eta irakasgaien arteko harreman curricularrak eta psikopedagogikoak ikusi dituzte. Zentzu horretan, moduluko lana lagungarria izan zaie beren prestakuntzan irakasgai guztiak beharrezkoak direla ulertzeko eta irakasgaien osagarritasunaz konturatzeko.

Auzi gehienak azterketa-fasean sortu dira, batez ere ikasleriak oinarrizko terminologiari buruz daukan kontrol faltagatik (ulergarria lehen mailakoak direla kontuan hartzen badugu). Halaber, ikasle batzuek irakasgaietako jakintzak moduluko lanera transferitzeko zailtasunak eduki dituzte, beharbada lan praktikoak egiteko ohitura faltaren ondorioz.

Datorren urteari begira, atzeman diren alde horiek hobetzeko, irakasgai bakoitzak, moduluko gidan, ikasleriak DALa egiteko kontuan izan behar dituen oinarrizko printzipio edo alderdiak islatuko ditu argiro. Horrekin batera, ikasturtearen hasieran beharrezko terminologia landuko da, batez ere didaktika eta psikopedagogiaren aldetik. Bestalde, moduluan parte hartzen duten irakasgai guztiek 3.3 puntuan aipatzen zen proiektu baten analisiaren adibidea aberastuko dute beren ikuspegitik azterketa garatuz.

Moduluaren **metodologia** dela eta, oso modu positiboan balioetsi da. Irakats-jarduera planifikatzeko sortutako ikasleen eta tutoretza orokorraren gidak oso lagungarriak izan dira: tutorizazioak, epeak, egin beharreko zereginak eta abar alde zehaztuak egoteak asko erraztu du, bai ikasleriaren, bai irakasleriaren lana. Halaber, irakasleen arteko koordinazioa asko estimatu da, eta tutorizazio-saioak ezinbestekotzat jo dira lana aurrera eramateko. Lan taldea ere aintzat hartu da: ideiak, esperientziak, eta abar partekatzea oso aberasgarria izan da txostena egiteko momentuan baina baita ere modu pertsonal batean. Hala ere, ikasleek lan kooperatiboan aritzeko baliabideak falta dituztela igarri da. Hori dela eta, datorren ikasturtearen hasieran alderdi hori lantzeari interesgarri iritzi zaio.

Azkenik, irakasle taldeak ikasle batzuek zeukaten desorientazioaren arrazoia identifikatu du: ez zuten gida irakurri. Oinarrizko auzi hori konpontzeko, eta datorren urteari begira, tutorizazioa eta gida orokorra bateratuko dira, laburbilduz, eta zeregin horren garrantzia indartuko da (nahiz eta aurrean ere alderdi hori azpimarratuta egon).

Ebaluazioaren aldetik errubrika adostuta edukitzea oso baliagarria izan da. Gainera, bi pertsonaren arteko ebaluazioak objektibotasun handia eman dio prozesuari. Lanaren hiru faseak egindako momentuan ebaluatzea, eta, beraz, zuzendu ahal izatea, oso positiboa izan da ikasleriarentzat: ziurtasun handia eta egindako eboluzioaren kontzientzia eman dizkie.

Irakasleriaren aldetik, igarri da errubrika birmoldatu behar dela deskripzio eta analisiari garrantzi handiagoa emateko, lehenengo mailako ikasleentzat bi alderdi horiek menperatzea oso garrantzitsua baita.

Oro har, beraz, oso positiboki balioetsi da Diziplina Arteko Lana, bai irakasle bai ikasleen aldetik. Zalantzarik gabe, hobetu beharreko aldeak daude, baina norabidea zuzena dela esan daiteke.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:

Cano, E. (2008). La evaluación por competencias en la educación superior. *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado*, 12, 3.

De Miguel, M. (2006). *Metodologías de enseñanza y aprendizaje para el desarrollo de competencias*. Madril: Alianza Editorial.

Fernández, A. (2006). Metodologías activas para la formación de competencias. *Educatio siglo XXI*, 24, 35-56.

SAE-HELAZ (2011): Irakaskuntza-metodologia aktiboak "Eragin" programan. Euskal Herriko Unibertsitatea.

8. ERANSKINAK

I. eranskina. Glosategia

- Berritzeguneak: Euskadiko Autonomia Erkidegoan irakasleentzako baliabideak kudeatzeko eta aholkularitza-lana egiteko dauden guneak, edo irakasleentzako prestakuntza-zentroak.
- DAL edo diziplinarteko lanak: irakasgai baten baino gehiagoren artean egiten den lan bakarra, integratua eta eragilea; gure kasuan, modulu bakoitzean horietako bat egingo da. Metodologia aktiboen bidez planteatzen dira.
- ERAGIN: UPV/EHUK egiten dituen metodologia aktibo eta berrietan irakasleak prestatzeko ikastaroak.
- Gaitasun akademikoak: gradu-tituluetan grabatuta dauden gaitasunak (titulukoak, ikasmilakoak, zeharkakoak...)
 - Zeharkako gaitasunak: titulazioan zehar lantzen dira, eta ez dute leku espezifikorik inongo irakasgaitan, titulazio osoko ardura baitira; horien artean egon daitezke honako hauek: trebetasun komunikatiboak, lankidetzak, ahozko adierazpena...
 - Modulukoak: modulu edo lauhileko batean garatu nahi ditugun gaitasunak, zeharkako gaitasunekin harremanetan egongo dira, eta titulazioko gaitasun profesionalizatzaileak garatuko dituzte.
 - Ikasmilakoak: ikasmilak batean lortu behar diren oinarrizko eta zeharkako gaitasunak.
 - Titulukoak: tituluarekin batera lortu behar diren gaitasunak.
- Gaitasun profesionalak: gradu berriekin BOEn definitzen diren gaitasun profesionalak dira, lanbidearen eginkizunarekin zerikusia dutenak.
- Gradu berriak: Boloniako hitzarmenaren ondoren, 1999n, Europar unibertsitateko titulu guztien konbergentzia hasi zen, eta ECTS kredituak sortzen dira. Horren arabera, unibertsitateko titulu berriak sortu ziren, eta irakasle-tituluak 4 urteko ikasketak izatera pasatu ziren. Haur Hezkuntzako tituluak, 2007ko abenduaren 29ko 312 zenbakia duen BOEan arautzen dira, 2007ko abenduaren 27ko 3854/2007 Aginduaren bitartez
- IKD (Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa): UPV/EHUK garatu nahi duen eredu pedagogikoa, metodologia aktiboetan oinarritua.

- Kasuen metodoa: iarduera-proposamenaren xedea da irakasgai baten edo gehiagoren gaineko ezagutzak integratzea eta egoera erreal batean aplikatzea
- Koordinazioa: trukaketa akademikoa diziplina ezberdineko irakasleen artean, edukiak, ebaluazioa eta metodologiak alderatzeko eta ikasketa-planak hobeto kudeatzeko.
- Lehengo diplomaturak hiru urteko ikasketak ziren. Ikasketa horiek HASOLen (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea) ezarpenarekin arautu ziren, eta 1992an ezarri ziren 2007ko agindua argitaratu arte indarrean egon diren diplomaturako ikasketak.
- Metodologia aktiboak: metodologia aktiboetan, ikaslea da irakaskuntzaren ardatza. Ikasleak bere ikaskuntzaren ardura izan behar luke informazioa bilatuz, hautatuz, aztertuz eta ebaluatuz, lan autozuzendua eginez.
- Mimdomoak: kontzeptu-mapak eta eskema digital partekatuak egiteko erabiltzen dugun softwarea.
- Modulua: lauhileko berean edo denbora-unitate batean eta ikasle talde berdinarekin ematen diren irakasgaiekin osatzen da. Gure kasuan, moduluan egin beharreko diziplinarteko lana jasotzen da, eta, orobat, erabaki genuen irakasgai bakoitzak moduluko diziplinarteko lana (DAL) egiteko kreditu bat eskaintzea. Kreditu horietan irakasle taldeak ikasleek egin behar duten diziplinarteko lana diseinatu behar zuen, baina irakasgai bakoitzak, gainerako kredituetan, bere eremu akademiko propioa mantentzen du.
- Modulukako planteamendua edo proposamena: titulua grabatzerakoan, irakasgaien banaketa gainditzeko eta gaitasun profesionalak garatzeko egiten den proposamena da. Modulu bakoitzean gai edo tematika profesional bat garatuko da.
- Portafolioak: tresna akademikoa ebaluazioa edo ikaslearen jarraipena egin ahal izateko, lanen bilduma koherente bat da. Lanak biltzeaz gainera, bertan hauek ere jaso daitezke ikasleen iruzkin eta kritikak, egunerokoak, artikuluak, definizioak, ariketak, laborategi-praktikak, eta bestelako lanak.
- Proiektuen bidez lan egitea: ikasleak egoera errealean aurrean jartzen dira, ikasten dutenaren bitartez, bizi diren gizartearekiko lotura handiagoa izateko; jardun horren bidez, trebetasunak eta ezagutza egoera errealean garatu eta aplikatzen dira.

II. eranskina. Baliabideen analisirako gida

- Ikasmaterialaren azterketarako ondoko gida hau proposatzen da:

Esperientziaren testuingurua

- Ikasgelaren eta ikasleen ezaugarriak
- Ikasmaita
- Gaia edo topikoa
- Iraupena
- Haurren interesetatik edo ikastaldearen motibazioa pizten duten egoeretatik abiatzen da?
- Lan osoari zentzua ematen dion xede argia du proposamenak? (adibidez: familiak gonbidatzeko jaia prestatzea, nagusientzako antzezlanak antolatzea, Ikerrek ekarritako kilkerak zaintzea hil ez daitezela...)

Helburuak eta gaitasunak

- Helburuak/gaitasunak argi adierazten dira?
- Baiezko kasuan: zer eremuri dagozkio?, proposatzen diren jarduerekin lortuko dira helburu/gaitasun horiek?
- Ezezko kasuan: proposatzen diren jarduerak horien bidez, zein dira lantzen diren helburuak/gaitasunak, zure ustez?
- Edo: unitate didaktikoaren edo proiektuaren kokapena curriculumean (esperientzia-eremua, garatzen dituen gaitasunak eta eduki-multzoak).
- Helburu bat lortzeko jarduerak bakarrik edo hainbat jarduerak proposatzen dira?

Edukiak

- Edukiak argi adierazten dira?
- Baiezko kasuan: zer eremuri dagozkio?, proposatzen diren jarduerekin lortuko dira eduki horiek?
- Ezezko kasuan: proposatzen diren jarduerak horien bidez, zein dira lantzen diren edukiak, zure ustez?

Metodologia eta ebaluazioa

Metodologia eta ebaluazioa edukiekin erlazionatuta aztertu ahal izateko fitxa hau proposatzen da datuak jasotze aldera:

AZTERKETA-FITXA		GAIA:.....IKASMAILA:.....			
SEKUENTZIA	JARDUERA	IRAKASLEEN ETA IKASLEEN ROLA	LANTZEN DEN EDUKIA	ERAIKITZEN DEN JAKINTZA	EREMUA
Motibazioa					
Aurretiko ezagutzak detektatzea					
Eskuratu beharreko jakintzak					
Informazioaren bilaketa					
Laburbilketa, ikasitakoaren gaineko ondorioak					
Ebaluazioa: motak, tresnak, irizpideak					

Aurreko fitxa bete, eta datu horien gaineko ondorioak idatzi (iruzkina, balioespena...), honako alderdi hauek kontuan hartuz:

A) Planteamendu metodologiko orokorra

- Lankidetzaz sustatzen da? (batez ere, 2. zikloan)
- Ikasleen taldekatze mota desberdinak proposatzen ditu: bikoteak, talde handia, talde txikia...?
- Parte-hartzea sustatzen da? Ikastaldearen barrutik kanpora (enkarguak aginduz...) edo egiten ari dena besteei komunikatuz (familiei, gainerako ikasgeletako haurrei...) eta kanpotik barrura (familiekiko eta gainerako ikasgeletako haurrekiko interakzioa...)?
- Malgua da, ikasleen interes, erritmo eta behar desberdinak barne hartzeko moduan edo, bestela, jarduera estandarizatuak eta denek batera egin beharrekoak planteatzen ditu?
- Haurrak taldean integrazteko irizpideak kontuan hartzen dira (aniztasunarekiko arreta)?
- Zer eginkizuna betetzen du jolasak, haurraren jarduerak?

B) *Proposatzen diren jarduera motak*

- Haur Hezkuntzaren printzipio orokorrekin bat datoz? (proiektuen izaera globalizatua...)
- Jarduerak independenteak dira edo sekuentzia didaktiko baten barnean planteatzen dira? Sekuentzia baldin badago, ondo planifikatua izan da?
- Oro har, haurrentzako bizi-zentzua eta zentzu afektiboa dituzten jarduerak eta esperientziak dira? Elkarrekin partekatze, bizitzeko, gozatzeko eta ikasteko esperientziak dira?
- Erlazio egokia dago curriculumean azaldutakoaren eta praktiken zein materialen artean? Zehaztu eta arrazoitu.
- Materialak, tresnak, euskarriak, objektuak: askotarikoak eta estereotiporik gabekoak dira erabiltzeko proposatzen diren materialak, tresnak, euskarriak, objektuak eta jostailuak? Testuak/fitxak... erabiltzen dituzte? Nolakoak dira? Edukia ikasle bakoitzari egokitu al zaio?
- Teknika motak: ikusizko, musikazko eta psikomotrizitatezko pertzepzio-, interpretazio- eta produkzio-teknikak konbinatzen dira? Teknika kognitiboak, maneiatzekoak, sentimenezkoak? Erreproduzitzeko, kopiatzeko, esperimentatzeko, ikertzeko... teknikak?

C) *Ezagutza-arloen arteko erlazioak*

- Ezagutza-arlo edo -eremuak aipatzen badira, nola izendatzen dira? Zer dakar erabilitako izenak? (adibidez, *plastika* aipatzen bada, horrek ekar dezake irudiaren ulerkuntza kritikoa bazter utzi eta eskulanari nagusitasuna ematea).
- Ezagutza-arlo bakarra edo batzuk lantzen dira, alegia, diziplinartekotasuna dago?
- Ezagutza-arloak batera eta era orekatuan lantzen dira? Badaude beste batzuek baino garrantzi handiagoa hartzen duten ezagutza-arloak? Zergatiei buruz hausnartu eta erantzunak arrazoitu.

D) *Hezkidetza*

- Hezkidetza-irizpideak kontuan hartzen dira edo ikasmaterial androzentrikoa da?

- Proposatzen diren helburuak eta gaitasunak sexu-bereizkeria ekiditen duten balioetan oinarritzen dira? (parekidetasuna, elkartasuna, askatasuna, begirunea, pluraltasuna, lankidetzaz, bakea, justizia, bizikidetzaz, zoriontasuna...). Bereizkeria hori ekiditeko baliagarriak dira?
- Testu, irudi, abesti, gorputz-adierazpen eta abarren bidez azaltzen/lantzen diren edukiek (kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak) sexu-identitateen arteko oreka edo bereizkeria erakusten dute? Pertsonaren garapen osoa bermatzeko balio dute?
- Sexismorik gabe erabiltzen da hizkuntza?
- Metodologiari dagokionez, nesken eta mutilen parte-hartze bidezkoa, orekatua bermatzen du? Nesken eta mutilen interesari egokitu al zaie? Sexuen arteko lankidetzaz oinarritzen da?
- Jardueretan, estereotipatu gabe banatzen dira rola? Nesken eta mutilen parte-hartze aktiboa eskatzen dute? Nesken eta mutilen jakin-mina pizten dute? Nesken zein mutilen interes eta ezaugarrietara egokitu al dira?
- Espazioa eta denbora era orekatuan banatzen dira sexuen artean?
- Sexuen arteko harreman sozialetan berdintasuna, parekidetasuna eta begirunea sustatzen dira? Norberaren identitatea garatzen laguntzen dute harreman sozialek?
- Ebaluazio mota, tresnak eta irizpideak, ikaskuntza-prozesu eta lorpen-maila desberdinetara egokitu al dira? Hiru eduki motak (kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak) era orekatuan ebaluatzen dira edo garrantzi handiagoa ematen zaio bati?

Ikasmaterialaren azterketari buruzko ondorioak idatziz jasoko dira txostenaren 2. atala izango den «Azterketa»n, eta honako azpiatal hauek hartu beharko ditu barne:

1. Helburuak eta gaitasunak
2. Edukiak
3. Metodologia
4. Ebaluazioa
5. Hezkidetzaz-planteamenduak

III. eranskina. Erreferentzia bibliografikoen aipamena

Hemen azalduko dugu erreferentzia bibliografikoak nola jarri testuan eta erreferentzia bibliografikoak nola jaso behar diren bukaeran. Ondoren agertuko diren arauak eskuliburu honetatik atera ditugu: APA (2010): *Manual of the American Psychological Association*.

Nola jarri erreferentzia bibliografikoak testuan

Autoreen aipamen zuzena egin daiteke: kasu honetan idatzitako testuan autore batek idatzi zuen testu bat kopiatzen da. Kopiatu den testuak 40 hitz baino gutxiago baditu bi modutan egin daiteke aipamena testuan:

(1) Autorea testuan aipatzen bada, honako adibide honi jarraituko diogu: Nahiz eta azterketa hau eskola inguruan egin, eskola ez da nesken heziketan arduradun bakarra. Arenas (1996)-k dioenez "neskak lehen aldiz eskolan sartzen direnean, eurekin dakartzate etxean, komunitatean, hedabideetan eta gizartean oro har ikasitako estereotipoak. Baina eskolak ere zeresan handia du estereotipo horien finkatzean". (17. Or.) Gaur arte egindako ikerketek agerian uzten dute hau: nahiz eta lege aldetik ahaleginak egin gobernuek sexuaren araberako bereizkeria oro erauzteko, eta hamaika aldaketa eginagatik, neskak eta emakumeak diskriminatuta eta txirotuta daude hezkuntzan mutiko eta gizonen aldean.

(2) Autorea testuan aipatzen ez bada, honako adibide honi jarraituko diogu: Nahiz eta azterketa hau eskola inguruan egin, eskola ez da nesken heziketan arduradun bakarra. "Neskak lehen aldiz eskolan sartzen direnean, eurekin dakartzate etxean, komunitatean, hedabideetan eta gizartean oro har ikasitako estereotipoak. Baina eskolak ere zeresan handia du estereotipo horien finkatzean" (Arenas, 1996, 17. Or.). Gaur arte egindako ikerketek agerian uzten dute hau: nahiz eta lege aldetik ahaleginak egin gobernuek sexuaren araberako bereizkeria oro erauzteko, eta hamaika aldaketa eginagatik, neskak eta emakumeak diskriminatuta eta txirotuta daude hezkuntzan mutiko eta gizonen aldean.

Kopiatutako testuak 40 hitz baino gehiago badu beste paragrafo batean doa, eta orduan honako adibide honi jarraituko diogu bakarrik:

"Genero identitatea pertsona bakoitzaren araberakoa da, eta lotuta dago gauzak ulertzeko erarekin eta emakume edo gizon sentitzeko erarekin, gizarte jakin batek pertsonengandik espero duen jokabideaz, jarreraz eta gaitasunaz ari da. Sozializazio prozesuak pertsona bakoitzari genero ezaugarri batzuk ezartzen dizkio eta horiekin hazten da eta heltzen; hala, feminitate eta maskulinitatearen ikuspegi estereotipatuek indartu egiten

dute neska eta emakumeentzat egokia dena, eta mutiko eta gizonentzat egokia dena” (Scraton, 1995, 20. Or.).

Aipamena egin daiteke parafrasi baten bidez; hau da, autoreen hitzak aipatzen dira, baina ez hitzez hitz, baizik eta idazleak interpretatu dituen bezala. Hiru eratan egin daiteke hori, adibidez:

(1) Sozializazioa jaiotzen garen unean bertan abiatzen den prozesua da, eta bizitza guztia irauten du. Beste pertsona batzuekiko harremanei eskerrak, inguru sozio-kultural bateko jarrera, balio, iguripen eta jokabideak barneratzen dira (Bosch, Ferrer & Alzamora, 2006).

(2) Sozializazioa jaiotzen garen unean bertan abiatzen den prozesua da eta bizitza guztia irauten du, Bosch-ek, Ferrer-ek eta Alzamora-k (2006) aipatzen duten bezala, eta beste pertsona batzuekiko harremanei eskerrak, inguru sozio-kultural bateko jarrera, balio, iguripen eta jokabideak barneratzen dira.

(3) Sozializazioa jaiotzen garen unean bertan abiatzen den prozesua da eta bizitza guztian zehar irauten du, 2006an Bosch, Ferrer eta Alzamora-k jasotzen duten bezala eta beste pertsona batzuekiko harremanei eskerrak, inguru sozio-kultural bateko jarrera, balio, iguripen eta jokabideak barneratzen dira (Bosch, Ferrer & Alzamora).

Autore bat baino gehiago badaude, lehenengo aipamenean izen guztiak jartzen dira publikazioan agertzen diren ordena berean, hortik aurrera jarriko da lehenengoaren abizena gehi “et al.”. Paragrafo baten barruan obra bat baino gehiago jasotzen badira, alfabetoaren arabera ordenatuko dira, eta autore berak obra bat baino gehiago badu, urtearen arabera ordenatuta. Autore horrek obrak bakarka nahiz taldean egin baditu, lehenengoz bakarkakoak aipatuko dira.

Nola jaso behar diren erreferentzia bibliografikoak testuaren bukaeran

Liburu osoa denean:

Abizena, Izenaren siglak (urtea). *Liburuaren izenburua*. Tokia: Argitaletxea.

Arenas Fernández, M.G. (1996). *Triunfantes perdedoras. Investigación sobre la vida de las niñas en la escuela*. Malaga: Malagako Unibertsitatea.

Vizcarra, M.T.; Macazaga, A.M. eta Rekalde, I. (2009). *Eskolako kirol lehiaketan neskek dituzten baloreak eta beharrak*. Bilbo: UPV/EHU eta Emakunde.

Liburu baten kapitulu bat denean:

Abizena, Izenaren siglak (urtea). Kapituluaren izenburua. In Izenaren siglak Abizena (ed.) *Liburuaren izenburua* (X.-Y. or.). Tokia: Argitaletxea.

Subirats, M. (2007). De la escuela mixta a la coeducación. La educación de las niñas: El aprendizaje de la subordinación. In A. Vega Navarro (koord.). *Mujer y educación. Una perspectiva de género* (137.-148. or.). Málaga: Aljibe.

Aldizkaria bada:

Sau Sánchez, V. (1989). Construcción de la identidad personal y la influencia de género. *Revista de Psicología Social*, 1, 7-12.

Argitalpen digitala denean:

Silva, V. (2003) Multiculturalismo, mujer y medios de comunicación. *Revista Digital Razón y Palabra*, 31.

<http://www.cem.itesm.mx/dacs/publicaciones/logos/anteriores/n31/vsilva.html>